

PATAR EZTULA

Gis ontan ezagungarritzen da gaisotze ikaragarriyak ekartzen dizki-
gun kalte neurri gabeak, non sortzen zaizkigun amatigo gabeko
gau eta egunen igaropen nekosuak.

¿Farra nork egiñ eztula indardun badago? ¿Zerk erakarri algara go-
zodun, eta lasaikerizko pakea, baldiñ zaukak uzten ez badigu?

Gabaz oeratu eta beriola, beruak egiten digula edo ez, asten zaigu
eztarriraten garangazko azkure nekagarriya, eta, ia mutillak; eju, eju-
ka sayetz ezurrak minberatuaz, jarraitzen degu loari bere eginkisuna
kenduaz ler eztanda egiñ arte.

Aldamen gelako, goi, eta beko auzo lagunak esnatzen diralarik,
egoten dira kupiturik esanaz; gizagajo orrek ori da lanbidia daukana
eziñ aztakurik eztularen korapillo edo bigurriyak; sendakiñen alegiñ
guztiyak alferrikakuak dira orrentzat, eztul orren muga izango da,
eriotza.

Birikak ondatuak dauzka: puzkaka dijoazkiyo abotik odol jariyuak
ematen diyonian, eta zaitzallia ama, edo emaztea bada, gaisoarekiñ ba-
tian igarotzen ditu neke doakabezko neurri gabe ayek.

Etzan, ta eziñ asnasari lasaipiderik eman, ešeri..... eta, ¡alferrik!
maindiriak minberatzen dizka gorputz ayeka guztiyak, ez du pakerik
arki iñon; begirun dizdiradun zorrotz bildurgarriya dauka, eta daguen
tokitik jeiki zaletzen da, bañan kemenik ez duelarik au egiteko, eska-
tzen diyo bere zaitzalliari laguntza.

¡Zer negargarrizko eskari mingarriya! ¡Arrimo billa dabill eriotza-
ren igesi, igartzen diyolako bere bizitzaren azkena datorkiyola presaka
biziyan!

¡Ustendu batetan len eskatu duben arrimo naiti ura, eta buruz
etzanaz burko ainbeste denboran bere azpiyan iduki dubenean, iltzen
da gizagajua!

Elizako ezkillak itzegiten du, emateko erriko adiskide guztiyai iri-
chi dala ontako edo alakoren ill berriya. Auzotarrak eche artaratzen

dira, elkarri albista mingarriya eman ondoren, oiturazko otoitzak Jaungoikuagan zuzentzeko, eta jakiña dan bezela, gelditzen dira borondatia ala duten batzuek gaubillan.

Gaua errez igarotze arren, ipui esaka algaraz eta farrez (gezurra diruri bañan) egunaren jayotz muga iriñten dute, gero apainduta (gizonak badira) elizkisunetara juateko.

Aipatzen dan gau ortan, ipui bitartietan maisiatzen da ill danaren bizitza; batek esaten du; gizagajo aren eztul orren etorrera izan zan, izerdi ondorengo oztutzetik, besteak, aurrenetik utzi ez baziyon eztulari indarra artzen, oraindik luzaroko gizona zan, eta besteak, pañarrak galdu du.

¡Zenbat, eta zenbatentzat da kaltegarriya edari pañarkiya!

Gai ontan arkitu geranak ondo dakigu edari patarkiz beterik eche-ratu eta urrengo goiza zer nekosua izan oi dan, eztul eskamillosuak pakerik ez du ematen, eta onen amatigotza topatzeko, aurreko eguneko griñak berak eramaten gaitu zagi pikedunaren aldamenara iruditurik an daguela, edo orrek daukala eztul maltzuraren sendagaya.

¡Zer gezur aundiyaren mende jartzen gaituen iritzi chachu onek!

Bere garai onez artzen badira bear diran neurri onak, sendatzen erresa dana da patar eztula, bañan ez da, jarraitzen bazayo zurrut egi-teari ezereen kezka edo ajola gabe.

Eztul mot au sendatzeko ez da sendakiñ bearrik; nork berak egiñ lezake sendakintza, utzirik era bat edari pañarkiya edatiari; gañuntzeko belarren ur egosi edatiak eta sendataluak sabel gañian ipintziak alferrikakuak izan oi dira pañar zurrutari jarraitzen bazayo.

Gai ontan arkitzen danak chinismen osoa eman lezayoke egiyazko arrazoi oni, bada neroni ere gayean arkitua naiz, eta au ondo dakitalako esaten det, nere antzeko guztiyak ontzat artururik ispillutat izan nazaten.

Goizetan eztul mot ori nai ez badezute, utzi edari patarkiya edatiari, eta gauetan goiz oeratu katilluka aundi bat esne bero edan ondoren.

Norbait edo norbaitzuek galdetuko dute: ¿nor da, edo zer eskubiderekiniñ mintzatzen da gizastaputz au gisa ontan? ¿Nork eman dizka eskubide oek? Eta, ¿nork ezagutzen du gai abetarako jakinduriyarekin?

Jaunak: egiyazko esaera batek diyona: *aurriak erakusten du alzia nola dantzatu.*

JUAN IGNACIO URANGA